

Gasteizen gogoan dute Gaztelaren konkista

• TOMAS URZAINKI MINA •
[ORREAGA ELKARTEKO KIDEA]

Egunotan kultur ekitaldi batzuk egiten ari dira Gasteizen, Gaztelak Nafarroako mendebaldearen edo itsas Nafarroaren konkista tragikoa egin zuenetik zortziehun urte bete direla oroitzeko. Ekitaldiak hurrengo igandean, hilaren 21ean, bukatuko dira, gaztelarrek 1200. urtean Gasteiz setiatu zutenean hiria defendatu zutenen omenez antolatutako herri-ekitaldi batekin.

Memoria kolektiboa inolako gupidarik gabe manipulatu emandako mende luzeek desitxuratu historiko ofizialaren iruzurrari lotu gaituzte. Horregatik, premiakoa da desintoxikazio prozesu bat abian jartzea, *borondatezko entrega* eta gisako asmakerietatik libra gaitzan. Kontu handiz ezkutatu dira konkista sistematikoa, okupazioa, nazionalizazioa, linguizidioa eta asimilazioa, zein alde aurretik pentsatuta egin baitziren, eta ez dira egia horiek guztiak justifikatzeko planteamenduak.

Gure gizartearen inokulatutako gaixotasuna —herri honetako biztanleak alienatzen dituen bera, eta betiereko umetxo soil bihurtzen— amarru batzuetan oinarritzen da, eta horiek egungo nazio handiaren mesederako baino ez dira, nazio hori Espainia edo Frantzia izanda ere, eta, halaber, gizarte honek nazioarteko eta Europako testuinguruan adin nagusitasuna berreskuratzea eragozten dute.

Bi erkidegoren existentzia proposatzea dikotomia ikaragarria da. Ez banan-banan ez taldeka ezin gara banandu eta bereizi euskal herritar eta nafarren artean. *Nafarra*, beste ezer baino gehiago, kontzeptu juridiko-politiko bat da. *Codex Calixtanus*-en nafar deitzen

zaie Arabako eta Bizkaiko biztanleei. 1177ko Londresko Laudo Arbitralari egindako alegazioetan ikus daitekeenez, Nafarroa dira, «bertako biztanleen ageriko leialtasuna» dela-eta. 1200. urteko konkistaz geroztik, konkistatutako lurraldeetan, Gaztelako erregeak goi mailako traiziotzat zigortzen zuen pertsona batek gaztelarra gabe nafarra zela aldarrikatzea. Nazio-identitate propioaren ikuspegitik, euskal herritar guztiak politikoki nafarrak gara, eta nafar guztiak kulturalki euskal herritar. Txanpon beraren bi aurpegiak dira.

Nafarroako Estatu europarra, XII. mendeko Europako gaineko Europako gainerakoak bezala, ondo zehaztutako lurralde batekin eratu zen, eta horren bermea izan ziren Gaztelarekin mugei buruz 1016an eta 1127an egindako hitzarmenak, eta 1177ko Londresko Laudo Arbitrala; eta, hala, 1190ean, gaur egun dagoen dokumentazioaren arabera, Nafarroaren itsasurak Castro Urdialeseraino iristen ziren.

Gizarte errealitate bera islatzen duten bi hitzak nahastu egiten dira, eta hori da akats handiena; gainera, oso zabaldua dago. Pertsonak berek osatzen dituzte euskal hizkuntz erkidegoa eta haren kultura, Euskal Herria, eta estatalitatea zein sistema juridikoa, Nafarroa politikoa estatu-nazio gisa. Nafarroako Estatuak nazioa adierazten du, edo gizarte politikoa, eta teknikoki baino ezin da be-

reizi kultur erkidego edo naziotik, zein Euskal Herria baita.

2000. urte honetan 800 urte betetzen dira egungo Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa lurraldeek, hau da, Nafarroako orduko mendebaldeko erdia osatzen zutenek, independentzia galdu zutenetik; izan ere, Hondarribitik Logroñora doan lerrotik mendebaldera Nafarroak zuen lurraldea Gaztelak konkistatu eta okupatu baitzuen —Sonsierra, Biasterri eta haren lurraldea, egungo Arabako Errioxa, izan ezik—. Nafarroako gainerako lurraldeek ere, azkenean, ez horratik borrokatu gabe askoz etsai indartsuago batzuen kontra, zorte

bera izan zuten —1512an batzuk Gaztelaren eskuetan erori ziren, eta 1620an besteak Frantziarenetan—, eta XIX. mendean bertako erakunde estatalak eraitsi eta haien orde bestek batzuk jarri zituzten. Baina, horiek gorabehera, 1200. urtea oso data garrantzitsua da, benetan orduan hasi baitzen galtzen independentzia. 2000. urtea aukera ona da denei gogorarazteko herri hau orain dela 800 urte hasi zela askatasuna galtzen, eta ez duela baztertu berreskuratzea.

Gaztelako armadek hitzarmen guztiak urratuta hasi zuten inbasioa. Eta hala, Oca, Obarenes eta Kantabria mendietako mugak hautsi zituzten, eta nafarren gotorlekuak txikitu. Gasteiz setiatu

zuten —bederatzi hilabetez aurre egin zuten— eta, besteak beste, Portilla, Trebiño, Arluzea, Zaitegi, Aitzorroitz, Beloaga eta Inzurako gazteluei eraso zieten.

Gasteiz —hiriaren forua Nafarroako errege Antso VI.a *Jakitunak* promulgatu zuen 1181. urtean— hiririk garrantzitsuenaren zen Nafarroako mendebaldean, eta, horregatik, Gaztelak armada osoa eta erasorako bitarteko guztiak han bildu zituen, setio luzea egiteko. Azkenean, gasteiztarrek —gabeziek, gaixotasunek eta goseak ankerki kolpatuak— amore eman behar izan zuten, errege Antso VII.a *Azkarraren* baimenarekin, askatasuna berreskuratzeke abagune hobea baten zain.

Gertaera haren 800. urteurrena, egun, balio sinboliko sendo batez jantzita ageri da, eta indarrez kendutako burujabetza berreskuratzeke bide egokiaz gogoeta egiteko balio digu, ezin izango baita berreskuratu Euskal Herriaren erreferente nazionala berriz ere Nafarroaren kontzeptu juridiko-politiko ez den bitartean.

Horregatik, nafarrak garelako kontzientzia politikoa dugunotako batzuk Arabako herrikideek Gasteizen antolatu duten ekitaldian egongo gara, nola zuzenean bertan hala gogoan han dugula, ekialdeko eta mendebaldeko nafarrei deitu baitiete agerian jarriko den plakaren aurrean biltzera. Plaka horrekin Gasteizen konkistaren zortziehun urteurrena oroitzeko da, eta, halaber, Nafarroaren independentzia, estatu propioa eta, beraz, euskal herritar guztiena orduan galtzen hasi zela.

• Erredakzioan itzulita

Hauteskunde kolonialak

• MIKEL URKOLA •
[EHUKO IRAKASLEA]

Asper-asper eginda gaude aspaldi honetan PPKo bere leloa egunero errepikatu eta entzun beharrean izateaz, hots, Gasteizko Parlamenturako hauteskundeak egin behar direla gaur bertan. Zer nahi dute?

Hondamendia. Begi-bistan da Gasteizko Parlamentuaren boterea lortu nahi dutela. Lortuko balute, dituzten zenbait kontraesan hobeto mozorrotu ahaliko lituzkete, noski. Adibidez, Estatutuko transferentziak itxura batean bete litezkeen, funtsean Herri hau boterez hustuago utzita. Gainera, boterea lortuko balute, zein txikiketa ez ligukete egingo? Hizkuntza arloan, ertzaintza arloan guardia zibiletz beteaz. PPKoak ETB eta Euskadiko Irratiaren jabe eginez, zenbat urte beharko ote genituzke burua altxatzeko? Horrek ez du esan nahi EAJren esku gure nahikunde guztiak betetzen direnik, ezta gutxiagorik ere.

Ez dugu ahaztu behar PSOEren mende Espainiako Estatuak GAL antolatu

bazuen, Espainiako eskubikoez, ordea, 1936-1939ko guda antolatu zutela. Hori dena gobernu demokratiko baten aurka altxamendua eginez. Orain bertan ere PPK abertzaleoi digun gorroto bizia ikusiz, horretarako prest daudela ematen du askotan. Horregatik, ezin da ulertu euskaldun zenbait PP eta EAJren artean aukeratzean zalantza egotea, EAJk erabat Lizarra-Garazi aldera jotzea erabakitzen badu behintzat. Zein da halako horien helburua eta estrategia?

Benetako hauteskundeak. Herri honi, objektiboki, zor zaizkion benetako hauteskundeak —eta inkestion arabera gehiengo handienak nahi duena— zera dira, burujabetza edo autodeterminaziorako hauteskundeak. Gainera guztiak hauteskunde kolonialak dira. Autodeterminazioko hauteskundeak, noski, euskaldunok antolaturik izan behar dute. Baina, hain zuzen, Euskal Herriko demokraziarako eta bakerako horren urrats garrantzitsua liratekeen hautes-

kunde horiek Aznarrek eta PPK ez digute antolatzen uzten. Zergatik? Konkistapean garelako.

Beraz, zer dira autodeterminazioko hauteskundeetatik at eginarazten dizkiguten beste hauteskundeak? Hauteskunde kolonialak: konkistapeko hauteskundeak, alegia. Oraingo egoeran, Gasteizko eta Iruñeko gobernuak eta parlamentuei muzin ez egitea bezain garrantzitsua da halako hauteskundeak kolonialak direla garbi ikustea.

Konkistaren krimenak. Euskal Herrian gaur dugun sasidemokraziak konkista eta kolonia egoera mozorrotzen du. Franco garaian ere espainiarrek, Francoaren diktadura suntsitzen laguntzen bagenien demokraziarekin dena lortu ahaliko genuela errepikatzen ziguten, autodeterminazioa barne. Espainiar demokraziarekin dena. Baina egia bestea da. Espainiar deituriko demokratikak, ezker-tiar, eskubitar eta faxistak denak dira konkistatzaile, eta bata bezain bestea in-

perialistak. Ez dugu ahaztu behar *demokrata* eta *faxista* kontzeptuak *nazio barneko* gobernurako kategoriak direla. *Nazio arteko* erlazioetan, ordea, inork ez du galdetzen ea Alemaniaren eta Japoniaren arteko erlazioak demokratik ala faxistak diren. Gure Herriak Espainiarekin dituen erlazioak aztertzeke kategoriak ez dute izan behar *demokrata* eta *faxista* kontzeptuak, *konkistapeko* eta *kolonial* kontzeptuak baizik, nazio arteko erlazioak aztertzeke kategoriak. Esparru guztietan beti planteamendu nazionala egiten ikasi behar dugu, eta euskal nazioa izan behar dugu abiapuntu eta helburu.

Euskal gatazkaren erruduna Espainia da, eta konkistaren krimenari uko egin behar dio. Bi Herri edo nazioaren arteko krimenik handiena bata bestea konkistatzea da. Konkistaren *krimenak* deitu beharko genioke: nazio ustiaketa, nazio bortxatzea, etnozidioa edota genozidioa, armapean edukitzea, instituzioen kolonizazioa eta abar.